



GORDAILU


[9]

1971 - Azaroa



PEDAGOGI
ALDIZKARIA

1971





"Saia zaitezte, zuen haur-
tzaroa ahaleaginean ahaztu orde, hau
rrekin batera bizi-berritzen. Kon-
preni itzazue gaur egungo giro eta
gertakizunek sorturiko diferentziak.

Pentsa ezazue, baita, orain-
go haurrak, oro har, ez direla lehen
go belaunaldiko haurrak, (gu), baino
makurrago; eta eskola-giro edo
gizarte giro jatorragoa balute, guk
baino gehiago egin lezaketela. Or-
duan ukanen luke pedagogiak beneta
ko arrakasta, eta orduan izanen au-
rrerapidearen seinale".

Freinet-ek.

2 HAINTZIN-SOLASIA

Ba doha emeki-emeki gure aldizkari hau gorputza hartzen. Baina zenbait iritzi entzunik, akatsik askoren jabe da oraino. Ez da batere harritzeko gauza. Lankide guti batzuen baitan da goela esan behar, nahiz-eta zertxobait hedatzen eta irakasle jendearen interes giroa bizten ari izan.

Zutik ikasi berri den haurraren gisa bilintzi-balantzaka dabil eta behar luke laguntza gehiago guztion aldetik oinak errealitatean ongi eta fermuki finka ditzan, eta ez taldetxo baten gora-behera izan, alegia, soilki arduradunen eginkizuna.

Hainitz harpidedun berri egin bailara batzuetan, eta beste batzuetan, kasik ezagutu ere ez hainbat ale argitara eman ondotik. Ikusteko begirik edo...i

Zer esan nahi ote honek? Bere aldizkaria ezagutu edo hartu ere egiten ez duen irakaslearekin eginen duk "erromatarren galtzada" berehalako batetan. Esan nahi bait da: gisa horretan ez daitekeela oso lan egokia eta espresio-bide jatorra guretzat goizetik gauera. Nola, ezagutu ere gabe lankide bihurtu?

Horiek oro, ordea, iritziak, hitzez bederen, iskribuz nahi genuke baina, gero-eta gehiago datozkigu gaiei, marrazkiei, euskerari... buruz; jendeak xuxen pagatu du harpidetza; norbere borondatez egin dira harpidedun berriak eta ez propaganda egin delako; etab. gauza positiboak dira.


EEEEEEEEEEEE


Aldizkariaren mamiari bagagozkio, funtsean, sakonketa sailekoa eta informaziokoa dabiltz hobekien azkenaldi honetan, eta, bederen, honek zerbait adierazi

nahi du faboretan. Gainera, ez dugu uste aintzinerat begira "poto" eginen dutenik. Hainbat konfiantza badugu.

Horrela, bada, iritzi-esperientzien saila seguratzera behar dugu johan lehen bai lehen, baldin-eta aldizkaria hanka bakar izan dadin nahi ez badugu behintzat. Bistan da, iritzi-eta esperientzien saila dabil makalen, igazko zenbaki batzutan ongien eta aberatsen gertatu zen saila, preseski. Eta egia, hau ongi ez johateak benetan gaitu kezkatzen eta larritzen, zeren-eta irakasleen axolakabekeriaren seinale bait ditake.

Bestalde, egia, baita, ikastaroaren hastapenetan gabiltzala oraino. Baina ez ote orri batto edo bestetto zirriborrazeko bezainbat puntu interesgarri aldizkariarentzat emankizun?





IKASTOLA ETA PEDAGOGIA

-Pedagogiaz mintzo garenean, bigarren mailako gaiak ari garela, ustekabeen, pentsatzen dugu. Egiazko arazoak, funtsezko problemak, ez bide dira alor honetan planteatzen, ez jokatzeko.

Agian, garrantzi tipiko afera jotzen dutelako, gurasoek ez lukete bere astirik hemen eman nahi. Nahiago dute eginkizun hau irakasleen bizkar bota. Behar bada, uste dute pedagogiaz ari garenean, "nola irakatsi"-ren alorrean garela oraindik eta "zer irakatsi"-ren mugara hel ez gaitezeko artean ataka zabalik dukegu. Beraz, pedagogia berria erabiltzeko libre dira irakasleak. Baina kasu eman gero; ez dautzue arrazoin sakonik eskatuko. Fruituak daukitzue eskatuko. Hemen baita da metodo baten balioa frogatzen. Bata nahiz bestea erabiltzeko libro zara. Zure pedagogia, berak emanen dituen ondorioen arabera, nik dut epaituko. Eta nik eskatzen dituen fruituak, nolana ere, egungo gizarteak beharrezko jotzen dituenak dira. Nik, nere semea, egungo gizartearen zehar, karrera onik egin dezan nahi dut prestatu.

Gurasoek ez daukute oztoporik jarriko bainan ikastaroaren amaian, egindako lanaren balioa neurtzeko beren metroa aterako daukute. Hobeki esan, gizartearen metroaz baliatuz gure lana neurtuko dute. Gizarte mailan gora jotzeko efikaz gertatzen diren heinean, gure metodoak onartuak izanen dira. Baina efikaziaren metro hau nork aukeratua izan den eta zer erdietsi nahi lukeen, ez da gehiegi pentsatu behar. Hau, erabaki behar zutenek, zuten erabaki. Ezta baida guztiak sobera dira. Ez, hau ez da alferriko eztabaida eta pedagogia berriak ba du zer esanik hemen.

Egun, pedagogia hitza guztion ahotan hain maiz dabilkigula, bere berezitasunaz eta bere mugaz ere jabetzen saiatu behar dugu.

Gizonak hezitzeko era berezi bat erabiltzen denean, pedagogia berezi bat erabiltzen dela esan nahi da. Heziketaz, norbaitek iritzi pertsonalik izan baleza, hau praktikatu ahal izateko, egoki derizkion bideak urratzen ahaleginduko da. Heziketari buruzko teoria eta hau ekintza bilakatzeko erabili ohi diren bideak, pedagogiaren bi memento bezala, hots, teoria eta praxia bezala ikus ditzakegu. Bi memento hauek elkarren osagarri direnez, elkarren uztarkide eta frogagarri erabili behar ditugu. Batak bestea du eskatzen eta finkatzen. Berez erabiltzeak, teoria hutsean edo teknika soilean erortzera, eramanen gaituzke,



Pedagogia urte hainitzez landutako zientzia dugu, sasoi guztietako pertsonak era bateko nahiz besteko heziketa, ukan dutelako. Eta jakintza mailan ohi denez, heziketari buruzko teoria zientifikoki landu aurretik, luzaron praktikatua izan da. Heziketaz ikuspegi berri bat aspaldi zabaltzen, zenbait hezitzaile saiatu bazen ere, eta haien oihartzunak gureganaino heldu badira ere, ez zuten bere saioiko heziketa-moldea puskatu ahal izan. Behar bada, lehen heziketa moldeari kritika sakonik egiteko, giro berri bat luzaroan prestatu beharra zegoen. Rousseau eta bere jarraitzaileen kritika zorrotzek ez zuten abegi onik izan.

Baina egun pedagogia zaharrari alderdi guztietatik erasotzen diote. Direnak eta ez direnak leporatzen dizkiote eta pedagogo berri sutsuenak oso kritika zorrotzak egiten dizkiote. Gehienek erarabat baztertzekeo garaia heldu dela diote. Halere, egungo gizartean, oso dago hedaturik eta ez du behin goan amore emanen. Agian, ez da, pedagogia zaharraren teoria aldeztu duen jende askorik izanen. Halere bizi da eta luze aski biziko dela ere esan daiteke. Egungo irakasle gehientsuenak molde zaharretan baina iraganak bait dira eta ez dituzte berehala, molde zaharrak hautsi ahal izanen.


Baina pedagogia zahar eta berri honen arteko ezberdintasuna zertan datza?

Eta gure ikastoletan lehena ala bigarrena erabili behar genuke?

Bata nahiz bestea erabiltzeko zer froga eman dezakegu?

Pedagogia berrian erabiltzen diren teknikak ezberdinak izanik ere, pedagogo berri bakoitzak bereak asmatu bait ditu, oinarritzat jo daitezken printzipioak berdintsuak dira. Gaur puntu nagusi hauen esanahiaz hitz egingo dugu.

1.-Lehenik pedagogia berria hontaz da jabetu. Hots, behar bat sumatzen denean, BEHAR hau asetzeko teknika egokiak idorotzen direla. Eta bizitzaren eraginez, guregana dezaguna, sarkor da eta iraunkor. Haur batek, bere adiskideen eskutitzik jaso dezanean, irakurtzearen beharraz jabetuko da eta baita lanari gogo biziz heldu ere. Irakaslearen eginkizuna, behar hau asetzeko egoki diren teknikak eta tresnak haurraren esku jartzea, izan da. Pertsonak bizi dituen behar nagusi eta eskola-ekintzaren arteko lotura, ahalik maila sakonenean egin nahi da, eskola, bizi eraginei erantzuna, izan dadin. Edonork pentsa dezake behar nagusi hauetaz gain ere, tokian tokikoak edukitzea oso premia handikoa dela. Behar batek bestea dakarrela, heziketa bizitu egiten da. Behar berriak sortzen joatea, irakaslearen eginkizuna da.



Honela bada, behar baten egarriak, asetzeko egoki diren bideak urratzen laguntzen du. Eta behar hori aseaz, bat, berri bat, sortzen da.

2.-Behar hauk, hain zuzen, ikasleen interesetatik abiatzen dira. Sarritan, pedagogia berri honen berezitasuna, ikasleak interes-eraztea dela, entzuten da. Eta ikaslearen interesak zeintzuk diren jakiteko, bere bizitzan murgildu, beste biderik ez du-

gu. Bere galderak arreta handiz entzunen baditugu, behinik-behin, bere kezka kezkatu behar dugu.

Eskola tradizionala ez da ikasleen bizitza konkretotik, ez eta beren psikologia moldeetatik abiatzen. Horregatik da ikasleen interesetatik hain urrun gertatzen;

Irakasle ororen eginkizuna, interes berriak biztea izanen da, gero, ikaslea bere gogara joka dadin utziaz. Ikaslearen interes hauk errespetatuz gero, ikaslea bera, bere heziketaren zuzendari nagusi gertatzen da. Eta berak du, heziketa prozesoa, bere berezitasunen arabera moldatzen. Eskola tradizionala, aitzitik, ikaslea bere bizi ingurutik atera eta irakaslearen pentsamoldeetan sartzen ahalegintzen da. Lehengo eskola ikasle ingurutik at gertatzen zen, oraingoa, ikasleak bizi duen inguruari atxikia eman nahi da. Ikaslea da hemen, heziketaren ardatzat jotzen. Berak bizi dituen kezka, abiabide.


Halere, interesak maila ezberdinetan ematen dira eta oker biderik har ez dezagun, berezi behar rean gara:

a.- Lan neketsu bai, sari bikain bat jaso asmoz, ekiten diogunean, sariak sortutako interesaren bultzada, nabaritutako da batipat, gure lanean. Edonork daki, saria medio dela sortzen daukuten interesa, lan hori amaitzeaz bat amaitzen dela. Egungo hezitzaileek, lan-sariaren interesa, zigorra medio dela, sortzen den interesa bezain zabar dela, esanen daukute. Lehen kasuan nola bigarrenetan, ikasleari, bere bizi-tzaz kanpo den zerbait, helburu ezartzen zaio. Zemairen beldurrez nahiz sariaren egarriz lanari lotuko gaitzaizkionean, lana ahal bezain laster baztertu eginen dugu.

b.- Goragoko maila batetan, ikasleak, memento ko edo egungo interesak eraginda, lanari gartsuki hel dezaioke. Egun, egungo interesak asetzen saiatuko gara kasu honetan. Egun direnak eta bihar izanen ez direnak. Eta jakina denez, egungo gizartearen klase nagusia, interes berriak sortzeko bere publizita

teaz, baliatzen da. Bide honetan barna abiatuz gero, modan dagoena egiteaz aseak gina ke. Kontsumo gizarterako prestaketa, eskola bihurtua genuke.

d.-Azkenik, goreneko maila batetan, interesa, norberak ari duen lanean murgildurik egoteak, sortzen du. Interes honen eraginez, lanari heltzen dioten irakasleek, aurrenik esperientziak eginen dituzte, gero esperientzia hauen esan-nahia, liburuetan nahiz fitxeroan gogotsu bilatzen dituztela. Freinet-en iritziz, adibidez, beren egunerokoa osotzeko idazten dituzten iskribuen bidez, haurrak gramatikaz jabetzen dira. Eskolan sortu duten kooperatiba administratuaz, matematika ikasten dute. Interes hauk egiazko nekerik eskatzen dute eta baita egiazko pozik eman ere. Nor, bere lanean espresatu ahal izateak bait du egiazko poza sortzen.




Nola interes hauek, haurraren bizitu eta elikatu? Honek haurren psikologia sakonki ezagutzea eskatzen du. Duela zenbait urte, Rousseau-k, honako hau idatzu zuen; "jakintsuenek, gizonentzat interesgarri denari helduko diote, eta haurrek zer ikasteko gai diren, ez dute gehiegi pentsatuko. Haurraren beti gizona nahi dute bilatu, haurra gizon izan aurretik zer den, pentsatu gabe... has zaite, beraz, zure haurrak hobeto ezagutzen".

Pedagogia berriak, metodo eta teknikak oro, gain-behera ezarri ordez, bere heziketa esperientzian oinarritu nahi du. Zinez uste bait du egiazko heziketaren gakoa honetan datzala: ikasleen egiazko interesak idoro eta hauek jorratzeko egoki den giroa sortu.

3.-Pedagogia hau konkretotik, esperientziatik abiatzen da, ez liburuetatik, ez abstraktutik. Gizaldi honen haseran, Decroly pedagogo famatuak egiaztatu zeukunez, guk prozesu normaltzat jo

tzen duguna, ez da haurrentzat berezko gertatzen. Gure ikuspegiz prozesoa bat azaldu nahi dugunean, lehenik zatiak ikusten ditugu eta osotasunera bigarrenik jotzen dugu. Haurrek, aitzitik, prozesoa orokarrak edo globalak, dira gauzak ez jabetzen. Gauza osotasunean ikusiz gero, zatietatik ohartzen dira. Beraz, irakurtzen irakasterakoan, metodo honetaz baliatu ez bagaituz, oker bidera makurtzen gara. Guk ikasi bezala, besteei ere irakatsi behar diegula, uste dugu maiz aski eta egin ere hala egiten dugu. Baina hau egiten dugun bakoitzean ez da ikaslea heziketaren neurria emanen duena, irakaslea baizik. Eta hau zientifikoki oker da, kaltegarri da.

Esperientziak ba du beste alderdi onik ere; egiazko problemek erantzuna ematen ahalegintzen da eta bide batez irudimena landu egiten du. Gainera nor, bere kabuz, erantzunik topa ez dezanean, laguntza eske jo beharko du edo-ta liburuez baliatzen ikasiko du.



4.-Pedagogia berria, disziplina-mota berri baten iturri nahidu izan. Dena gain-behera ezartzen den heziketa molde batetan, jakintza ikasleengan, olibo zartaginean bezelatsu, isurtzen da. Heziketa molde hau erabil dezagun arte, disziplina zorrotz baten beharra nabaritu dugu. Ikasleak gogorik ukan ez dezanean, behartzeko alde batetik eta bere bizi indarrak gainezka egiten dutenean, menderatzeko bestetik disziplinaren eztena erabiliko du.

Aldiz, interes bizi bat abiabide har dezagunean, disziplina, hasitako lana aurrera atera beharrrak, lanari zintzoki eutsi beharrrak sortuko du. Disziplina, autodisziplina bilakatuko da. Tankera honetako eskolarik ikus badezagu, ikasleek, ari duten lanaz elkarrekin mintzatzen ikusiko ditugu eta libreki mugitzen. Zenbait pertsona helduri, hau ez zaio batere atsegin, zigorraren beldurra, ikasleak menderatzeko bide bakarra ikusten duelako.

Halere, egiaz pedagogia berria erabiltzen du

en eskolarik, ikus dezanak, nahasketa eta iskanbila sortzen denik, ezin esanen du. Autodisziplina honek, lankidetzarako jendea presta dezake. Azkar ari direnek motelago dohaz, enei eskua luzatzen dietelarik.

5.-Pedagogia berriak, talde-lana egiteko giro egokia sortzen du. Batetik, ikasleei oso atsegina zaie elkarrekin lanaren zailtasunaz nahiz erraztasunaz ihardutea. Denek, bide berdinetik abia ez daitezenean, iritzi ezberdinak ere badirela ikusiko dute. Eta nola besteek norberarena hala nork besterena errespetatu egin behar dituztela, ikas dezakete. Era berdinean, iritziak garbi azaltzen ahalegintzen diren neurrian, espresio bideak jorratzen dituzte.

Esan dezagun bidenabar, talde hau biziki lanean ariko bada, bere organizazioaren eta bere programazioaren jabe izan beharko duela. Bertan sortzen diren eztabaidak eta makurrak zuzentzea bere esku egonen da. Eta hau egiten den heinean taldearen nortasuna finkatu ahal da.

Prinzipio hauetan oinarritzen den pedagogia, pedagogia zaharraren kritika kupidagabe gertatzen da. Heziketa-molde zaharretan zanpatzen diren zenbait joera nagusi, hemen baloratu eta landu egiten dira. Eskola tradizionallean oker irizten zena, eskola berriaren abiabide eta eredu bilakatu da.



Gure ikastoletan lanean ari diren irakasle gehientsuenek pedagogia berriaren zale ditugu. Heziketaren egiazko kezka bizi dutenek, hemen bertan ikastaldiak antolatzen nahiz kanpoan eratzen diren ikastaldietara joaten saiatzen dira. Eta hau lan luze eta nekeza da.

Hontarako herri mailan lehenik eta bailara mailan bigarren talde-lana egitea beharrezko da. Egiazko heziketa borobildu ahal izateko irakasle e-

11
batek ematen duen heziketa mota, lehenak emandakoa-
ren jarraipena behar du izan. Freinet-ek dionez, zaz-
pigarren mailan eta gorago ere Freinet egin ahal
da, aurrez Freinet egin bada. Bestela denbora luzea
alferrik xahuko da.

Bestalde heziketa molde hauetaz jabetzeko,
elkarren berri izateak biziki laguntzen du. Proze-
so bat bere osotasunean ikusi ahal izateko, elkarren
osagarri diren alderdiak, lankidetzan idorotzen erra-
zago delako. Eta lankideak eginak dituen huts ber-
berak inork egin ez ditzan.

Pedagogia hau, behar bezala erabiltzeko, gure
pedagogiko molde zaharrak, oztoporik handiena ditu-
gu. Eskema hauetatik, gure buruak askatu ahal izate-
ko, teoriak jantzi eta praktikak indartu behar dugu.
Bestela saio batzuk egin ondoren lehenera berriro
ere makur gaitezke.

Bai, molde zaharretan gure lana ondo mugatua
zen eta lanaren ondorioak ikastaroaren azkenean i-
kusi ahal ziren. Eta lanaren efikazia neurtzeko, gu-
re neurriez baliatzen, luzaroan irakatsi daukute.
Guk ere, oharkabean edo jakinean, metro honetaz ikas-
leen balioa emanen dugu. Ikaslerik onena, matemati-
kan aurreratuen eta irakaslearen azalpenak, lehenik
ulertzen dituen da.

Pedagogia berrian aldiz, ikaslea bere gaitasunak neu-
rria, alor batetan nahiz bestetan, emateko askatu egiten da. Nortasu-
naren berezitasunak baloratu eta
lantzen ahalegintzen da.
Ez dira aurrerapenak nahi bezain
lasterr sumatzen. Beti bila ibili
beharra dago. Gure eskemak iraul-
tzeko adorea ukan ez bageneza eta erdibidea aukera
bageneza, lur-joko dugu eta etsai bihur gaitezke.

Guri ondorenak argi ikustea batere erraz ez
bazaigu, are gutiago gurasoei izanen zaie. Gurasoek
koloka direla eta gure buruak segur ikusten ez di-
tugula, amore ematea ez litzake batere harrigarri i




zanen. Zertarako aldatu esanen du zenbaitek. Ni urte askoz iharduna naiz eta lehengo bideei eusteko, nere zio tinkoak ditut. Ene frogak hor dira: nere eskolan barrena iragan eta orain edozein karrera nahiz ofizio hasteko gertu diren ikasleetan, alegia. Eta gainera, hemen ere, askatasuna behar da. Bakoi - tzak bere bideak aukera bitza, nik nere aukera egi - na dut. Bai, askatasuna metodo bat nahiz bestea au - keratzeko behar da. Baina ikasleak zanpatuko ditu - en metodorik aukeratze^{ko}, ez dut nik uste, askatasuna inork izan behar lukeanik.

Tamalez, jokabide hau aski hedatua da orain - dik gure ikastoletan ere. Jokabide konformista eta gaitzesgarri. Honela mintzo den irakasleak, bere heziketa prozesoa bukatua dela uste du. Ikasi behar zuena, ikasia duela uste du. Aurrerantzean ez du ikasi behar, irakatsi baizik.

Ikasle hainitz pasa da bere eskuetatik, gaia ongi menderatu du, urteetako esperientzia egina du. Irakasleak esaminetan ongi atera baditu, gurasoek go - raipatu egiten dute, bere balioari azken froga e - rantsi diote.

Maila batetan, pedagogia berriari egiten zai on kritika "defentsiba" - edo dei dezakegu, ikuspegi hau. Ez da oraindik ekarri heldurik eman ez duen biderik onartu nahi. Segur jokatu nahi da.



Beste maila batetan, teoria mailan, pedagogia berria ri erasten zaizkion akatsak hauk ditugu:

1.- Gehiegizko askatasunak, ikaslea hezi beharrean desezi egiten duela. Anarkia sor tzen duela eta ikasteko giro egokirik sortu ez baina hondatu egiten bide du. Disziplina, ondore - nez nahi eta ezkoa, jotzen da. Pedagogia berriak os - tera erantzun. Disziplina egiazko bada, oinarritu e - ta arrazoitu egin behar da. Hau da, hain zuzen zai - len eta pedagogia zaharrak, eginen ez duena. Diszipli naren balioaz ez da dudarik egiten. Ikasleek, ez dire la disziplinaren balioaz jabetzera, bere kabuz,

hel ahal, uste izatea, besterik da. Naturalezak beti okerrera jotzen duela, suposatzen da honetarako. Eta askatasunari mugarik jar ez bagenez, libro denak okerra aukeratuko duela pentsatzea. Hau zinez, pedagogia zaharra baino gehiago ere ba da!

2.- Irakasleari errespetua galtzen zaiola eta ikaslearen morroi bihurtzen dela. Arrisku hau benetakoa da segur aski, noiz hau gertatzen den antzematea erraz ez izanik ere, eta haintzat hartu behar dugu. Egiazko bada arrisku hau, egiazko jo behar dugu beste honoko hau ere: agintearen eta ordenaren atxakian, ikasleen askatasuna mugatzeko arriskua, alegia. Bata bestea bezain handi badira ere, bigarren bide hau erabiliaz, jende hainitz konformista bilakatu da.



Bere askatasunari, arrazoin zinezko rik eman gabe ere, mugak jar dakizkiotenean, isildu egingen da. Askatasunaren arriskuez maiz hitz egin zaio, askatasunaren balioaz guti. Eta gizonaren askatasun gosea, bizi indar nagusiénetako bat, ez dugu indartu.

Disziplinaren atxakian, irakasleek, ikasleak bere zerbitzuan jarri dituzte, bere burua ikasleen zerbitzu jarri beharrean.

3.- Bizitza erosoegi egiten zaiela eta zailtasunaren garratza ez zaiela dasta-erazten. Hau egungo familietan, oso joera hedatua dela onar daiteke. Ez, ordea, pedagogia berriari leporatu. Nere ustez, neke larrienak, norberak asmatutako obra bat aurrera ateratzeko, ematen direnak dira. Ikasleek neketsu diren lanei ihes egiten dietela ez da egi. Lanak nekea du eta lanari gartsuki ekiteak, neke luzeago bat jasateko indarra emanen du. Zailaren mistizismoa bota egin behar da. Zaila, zaila delako ez da on, ez eta zailena, zailen delako onen. Gauza bat gogoko eta zail era berean izan daiteke eta ez dira bata bestearen etsai bihurtu behar, eskoletan

lanerako giro egokirik sor lezanak, ikasleak zailtasunetatik at jarri beharrean, zailtasunetan barrendu egingen ditu.

&&&&&&&

Lehen mailan nahiz bigarren mailan egiten zaizkion kritika hauek, ez dira pedagogia berriaren funtsera heltzen. Bere mamiari ez-baina, bere erabilkerari dagozkiola, esan genezake. Pedagogia berriarren oinarriak luzaroan finkatuak dira; ez dira, kritika arinez, koloka jarri ahal diren horietakoak.

Pedagogia berrian, ikaslea, bere heziketaren gidari eta moldatzaile, egin nahi da. Ikasleak bizi dituen interesak, ikasleak gogoko duen lankidetzak, ikasleak askatasun giroan lortu ahal duen disziplina eta ikasleak bere lanari erantzuteko emanen dituen nekeak, heziketa honen zutabe nagusiak dira.

Pedagogia berria askatasunaren eta ordenaren, interesaren eta nekearen, pertsonaren eta elkarrearen lotura egiten ahalegintzen da. Hau egin ahal dela uste du. Egungo gizartean, kualitate hauek nekez ikus badaitezke, heziketa egokirik eman ez dela uste du. Molde zaharrak, kualitate hauek lantzeko ez dira gai izan. Berriak gai izanen ahal dira? utopia esanen du zenbaitek... eta lasai geratuko da.

Heziketa molde berri hauek ongi eza gutu eta erabiliko bagenu, gure ikastolen nortasuna finkatu egingen genuke. Ikasi eta erabiltzen ez ditugun heinean, ikastolek egun bizi duten arazo bati ez diogu erantzunik eman ahal. Egungo eskolaren egoera oso larria da. Eskola presondegi bihurtu dela maiz aski irakurtzen ahal da. Eskolak luzaroan bere bizitzari eutsiko badio, gero eta represio bide gogorragoz baliatu beharko du. Ikastola ere bide honetan barrena abiatu, ez abiatu euskalerriko irakasle en esku dago, hein batetan bederen.

Ikastola, alor honetan bide bat markatzera heldu ez bada ere, irakasle hainitzen kezka eta pedagogia berriaz jabetzeko antolatzen dituzten ikas-taldiak, entzunak dira. Baina eragozpen serioak gainditu beharrean gara. Pedagogia berri honen hildotik ibiltzen saiatzen den irakasleak aurkitzen duen oztoporik handiena, irakaskintza ofizialak markatutako programari erantzun beharra, da. Gain-behera ezarritako programak, pentsaera berezi bat sortzea dute helburu. Pedagogia berriak bestelakorik sor dezake. Eta hauk elkar-lotu ezinak ukanen ote lirategen-edo, irakaskintza ofiziala beldur da.

Esperientzia hauk egiteko irakasleek, denbora luzea behar dute, gurasoen konfiantza eta laguntza behar dute.

Bestalde esaminetan ongi ateratzeko eran, irakasleak prestatu behar dituzte. Ofizialtasuna salbatu behar dute. Beraz, gertatzen dena zera da: pedagogia berria saiatu bezain laster, laster utzi behar izaten dela, programa ofizialen esanetara jartzeko. Pedagogia berria ez da egun, ofizialtasunean landu ahal.

Egiazko deritzagun hezibidea utzi eta, lege bat betetzearren, kaltegarri jotzen duguna hartu. Hona hemen, egungo irakaskintzaren, kontraesan argienetako bat. Eta honen aurrean zer egin?

Lehenik kontraesan hau bizi segun aski. Bigarren, egiazko kontraesanak agertzen dauzkigun pedagogiaz balia gaitzekela pentsatu, ustez ona delakoan, pentsatze ra behartzen gaituelako, besterik ez bada. Eta batipat, kontraesan hau bere azken ondorioetara luzatu. Kontraesan hau gainditu nahirik, pedagogia alorretik gorago jo beharko dugu, noski. Beste maila batetan, irakaskintza eraketan eta azkenik gizarte estrukturazioan erantzuna aurkituko diogulakoan.



Ohar gaitezen gainera pedagogia berria ez dela hain berria ere. Pedagogo iraultzaile frango hamaika neke eta izerdi jasana da. Bere ekintzaren fruituak ikusteke hil da. Gehienetan, langile purru katu hauek, bere garaian, gaitzetsiak izan dira.

Egungo irakaskintza eraketa hainitzek ba du zenbait gauza gizon hauengandik jasoa. Ez ordea heziketa molde honen funtsa edo mamia. Teknikak ditu jaso. Eta hauek ere efikaziari begira, lagungarri jotzen dituenen eta efikazia honen froga garbiak jasoz gero. Teknika hauk beren jatorrizko helburuei tatik berez eta produkzioaren gehigarri erabili.

\$\$\$\$\$\$

Horregatik ez da metodo berriak erabiltzea aski. Teknika hauen jomugak ezagutu egin behar dira. Teknika hutsean geratzeko arriskua benetako da, egungo gizartearen pentsamoldea oso tekniko da eta. Eta maila honetan gera bagaitz, ikasleek teknikarako dituzten gaitasunak landuaz, gure gizartean errazago integratu ahal izateko, prestatuko ditugu. Metodo hauk erabiliaz, tekniko onak atera daitezke ikusteko, haurrek egiten dituzten lanak ikusi besterik ez dugu. Irakasleak arrasturik gelditzen dira;



Bide honi ekin bagenezaio, teknika hauk heziketarako tresna izanik, heziketaren helburu bihurtuak genituzke. Eta arrisku hau jokatu behar dugun garaia heldu zaigulako, jakinaren gainean joka bageneza hainbat hobe.

Baina kontu egin dezagun, teknika arrisku honetan erortzeke, heziketa mota berri bat gure ikastolatan ematera heldu garela. Hots, eskola barreneko giroari gagozkiola, demokrazia giro bat sortu dugula. Behar bada, ikasleek sortzen duten batzordeak, eskola barreneko hauziak zuzenduko ditu. Eta uste ere, giro honetan heziketako ikasleek ezin dutela autoritarismoa eta indarkeria onar, usteko dugu. Bai, bizi duten inguruko giroa berdina balitz; Eskoletako giro

roa ordea berdina da; ikastolako hormak bukatzeaz bat amaitzen da. Giro honek, ez bait da gizarte giroan xertatu ahal, ez du luze iraunen.

Giro hertsia honetan landu diren joerak, hain zuzen, izanen dira gizarteak zanpatu eta ezabatuko dituenak. Luzaro gabe, ez da haizetaz deus geratuko. Gizarte honek, teknika eta demokrazia integratzen oso ongi bait daki.

888888

Hemen pedagogiaren muga bat jotzen da. Egi azko pedagogia egin nahi dezanak bere mugaz ere ja beturik behar du egon. Ikasleak bizi duen inguruak, indar handia duela eta heziketari eragozpen ikararriak jartzen dizkiola, ezin dugu ahantz. Bide hone tatik abiatuz gero, eskola-ekintzatik harantz, gizarte arazoetara jo beharrean aurkituko da. Pedagogia mailatik abiatzen dela, pedagogia arazoari aurpegi emateko, haruntzago jotzeko beharraz da jabetzen.

Pedagogiaren alderdi hau, hots, gizarte honen aldakuntzarako ukan dezaken garrantzia eta gogoan hartu beharreko mugak, arreta handiz aztertu behar dugu. Ia aspalditxo da, Freinet-ek honoko hau idatzi zuela: "politika eta ekonomia mailan deus egiteko-rik ez bagenu bezala, mintzatzen dena, oker da. Kasu bakar batzuek kenduz gero, eskola ez da nehoiz aurrerapen sozialaren puntan egon, esperientziak erakusten daukenez. Teorian egon daiteke, baina praktikan bere desarroiloa, gizarte eta politiko giroari atxikia dago. Eta ezin da, hipotetikoki ez bada, hauengandik askaturik ikus. Eskola, sozial mailan egiten diren aurrerapenen atzetik, atzerapen penagarri batez, johan ohi da. Atzerapen honen laburtzea, guri dago-kigu".

#####

Heziketaren bidez, gizartea alda ahal daiteke? Nazio hainitzetako irakaskintza antolamenduak, hau egin asmoz, behin eta berriz gaurkotu egiten dira. E

dozein gobernuk, irakaskintza, lehen mailako arazoa jotzen du. Nazio baten giza-maila, ustez, irakaskintza antolamenduak ematen duelakoan. Ahalik jenderik gehiena nahi da eskoletara bidali. Egiteko gai diren ikasketak, denek egin ahal ditzaitez, erdietsi nahi dute, hitzez behintzat.

Urte batzuek direla eraturako sistimak zaharrrak iruditzen eta zeharo berritu behar bide dira. Aldakuntza hauk, lehen mailako irakaskintzari dagozkio batipat. Goi mailako irakaskintza guti aski dute ukitzen. Behe mailan jendetza handiagoa biltzen delako problema latzagoak planteatzen dira eta hartatik ere reformak radikalagoak irizten dira.

Zoritxarrez hemen ere, dena, deus ez aldatzeko aldatzen da. Baina itxuraz aldatu egiten da eta herri osoak, emandako pausoaren berri ukan dezan, propaganda bide guztiak erabiliko dira. Aita-ama asko beren seme-alabak ez dakit zer eratako karrerak egiten ari direlakoan nahasi eta poztu eginen dira,

Oso aurrera jo da oraingoan. Halere dirua eskas delako ez da nahi hainbat aurrera egin. Halere gauzak ongi neurtu dira eta urrengo reforma baten zai jendea jartzea lortu da. Gainera nazio aurreratuetan diren irakaskintza sistimak gureaz gonbaratu dira eta haien mailara heltzeko jendearen laguntza eskatu.

Gizarte, egiazki aldatu nahi denean, ez da irakaskintza soil-soilik aldatu behar. Irakaskintza



eraketa batek, sortu duen gizartearen neurria ematen du, eta gizarte horrek ezartzen dizkion mugetara bildu behar du. Beraz, nazio batetan, erabili ahal diren pedagogiko sistimak eta heziketa motak, klase nagusiari egoki zaizkionak izanen dira. Klase nagusiak, bere nagusigoak, iraun dezan, eskolaz baliatzen da. Eskoletan egiten diren refor

ma bidez zer lortu nahi da orduan?

Lehen eta orain reformak, produkzioa gehitu asmoz egin dira. Gizartearen "rentabilitatea" dute helburu. Eta helburu hau izanik, egiazko aldiakuntzarik are gutiago iraultzarik irakaskintza mailan, ez da egin ahal.

Freinet aipatu dugunez, bere iritzia biltzea on izanen zaigu: "Pedagogo handiak, jeneralki, haurrak duen giza-gaitasuna landu nahirik, iraultzaile sutsuak izan badira ere, jarraitzaileen jokabidea ez da berdina izan. Hauek, beren maisuen ikasbideak, egungo irakaskintza eraketaren zerbitzuan jarri dituzte. Eta hauetarik batzuek, maisuen jarraitzaile zintzoak izan nahi bazuten, estatuak "bide zuzenera" laster erakarri ditu. Eskolaren lardaskatzea eta husteltzea, gizarte kapitalist honen zabalkundearen ondorio da. Irakaskintza hobetzea, reformatzea ez da aski. Aldatu egin behar da. Irauli egin behar da. Egungo eskola, kapitalismoak sortua da eta bere murrontzan ari da. Eraketa berri bati, eskola berri bat dagokio: langileria eskola, alegia".

Freinet-ek bere eskola sortu zuen eta egun, alderdi guztietan banaturik, jarraitzaile asko du. Halere, jarraitzaile hauen artean ba dira iritzi ez berdinetakoak. Teknikak gehiegi baloratzen direla eta gizarte giroa aldatzeko behar den konpromisoari jaramon guti egiten zaiola, uste da alde batetik. Bestetik, eskola gizarte giroaz hitz egiteko eta jendea politizatu ahal izateko tresna bihurtuko ote den, beldur dira. Ikasleei ez zaizkiela problema alferrikakoak, ez pertsona helduek bizi dituzten arazoak bota behar, esanen dute hauek. Eta ikasleek agertzen dituzten arazoei, erantzuna eman baino ez dela egin behar. Besteek ostera erantzun. Ba dela zenbait problema ikasleek harrotu ezina, hain zuzen, hortarako gaitasuna urte askoren buruan, gizarte honen kendu egin dielako. Eta problema hauetaz ez hitzegitea ez litzake zilegi izanen.

Guk erabilitako metodoen mamirik alda ez ba geneza, ez dugu aldakuntza sakonik eginen.

Eskolak modernizatu eta gaurkotu eginen ditugu bai. Besteekin konpetentzian sartzeko prestatuko ditugu.

Honela reformismo hutsean geratuko ginake. Pedagogiaz baliatu beharrean, pedagogiaren zerbitzu an ariko ginake. Hezi bide bikain hau, gure lilura bilakatua genuke;

X. Lekunberri.



~~ELIZAK ETA KRISTOAREN~~

Ihesbidea. Pobretasun falta. Hona bi akusazio gure arteko Elizaren kontra, Ikastolekin duen jokabidea dela-eta.

Alde batetik: 20 urtetako gazteari fede plan teamendu berri eta sakon bat eskaintzea baino Ikas toletako haurrei dotrina ematea errazago da. Elizak ausardia osoa galdu du, imajinazio gabe gelditu da.

Bestetik: Elizak indartsu izan nahi du. Ez du aski Kristoren eta ebanjelioaren indarrarekin. Jabetza pribatuen egarria ase ezinik dabil.

Puntu hauetaz autokritika ausart eta serio bat egitea ez ote zaiku komeni? Horretara noa, eske matikoki ezpada ere.

Zein da Elizaren helburua? Batez ere eta hitz laburrez: pertsonaren kristau askatasuna oihukatu eta hori realizatzen saiatzea.

Elizak oihukatu behar duen pertsonaren askatasuna Kristorengan zentratua dago. Bego hori argi. Elizarentzat, Kristo gabe ez dago egiazko askatasunik lortzerik.

Baina pertsonaren askatasuna da. Ez animarena. Eta ez gerokoa. Oraingoa eta betirakoa. Gizarte konkretuko pertsona konkretuarena.



Pertsona zirkunztantzia konkretu batetan bizi da beti. Eta ez dago zirkunztantzia neutralik. Zirkunztantzia guztiak pertsonagintzaren aldekoak ala kontrakoak dira. Zirkunztantzia hau kultura, pplitika, zientzia, ekonomia, etnia, familia,

konsumoa eta abar dira. Errealitate horietaz arduratu behar du Elizak, askatu behar duen pertsona zirkuntantzi horietan bizi delako eta horietaz forma tua nahiz deformatua. Horrela, pertsonagintzaren kontra doazen zirkuntantziak salatzen eta aldekoak mami tzen ahalegindu behar du.

Maila jeneral honetan irakurle guztiak konforme samar izango dira. Gauzak konkretatzen hasten garenean izaten dira kontuak.


Zeintzuk ditu Elizak bere helburua betetzeko behar dituen indarrak edo bideak? Kristo eta Bere hitza bakar bakarrik. Horrek behar luke Elizaren jabetza pribatu bakarra. Eliza pobrea, beste jabetzarik gabea.

Kristo eta Bere ebanjelioa ahazturik beste bide eta indar mundutar batzuez baliatu delako Eliza, orain honela ikusten dugu gehienbat:

- a) Jendea bataiatu, gehiena herri aberats eta kapitalistetan bizi da.
- b) Horrek esan nahi du, Elizak zapaltzaileekin harreman hertsiagoak izan dituela zapalduekin baino.
- d) Ondorioz, bere helburu askatzailetik saiestua dagoela.

Henri Fesquet-ek, Erromako Sinodoari begira, (Le Monde, 28-9-71) honela zion:

"Comment, en effet, l'Eglise retrouverait-elle sa "fiabilité" si elle s'avérait incapable, d'une part, d'arrêter l'hémorragie de ses cadres et, d'autre part, de définir clairement ses responsabilités à l'égard d'un monde schizophrène dont les deux tiers sont victimes de l'apreté des pays possédants pour la plupart composés, comme par hasard, de baptisés... Le glas de la "chrétienté" pourrait être inscrit dans l'histoire du capitalisme contemporain et dans l'enflure de la civilisation de consommation.. De l'Eglise le monde attend non pas des paroles,



Ihesbidea. Pobretasun falta. Hona bi akusazio gure arteko Elizaren kontra, Ikastolekin duen jokabidea dela-eta.

Alde batetik: 20 urtetako gazteari fede plan teamendu berri eta sakon bat eskaintzea baino Ikastolekiko haurrei dotrina ematea errazago da. Elizak ausardia osoa galdu du, imajinazio gabe gelditu da.

Bestetik: Elizak indartsu izan nahi du. Ez du aski Kristoren eta ebanjelioaren indarrarekin. Jabetza pribatuen egarria ase ezinik dabil.

Puntu hauetaz autokritika ausart eta serio bat egitea ez ote zaiku komeni? Horretara noa, eske matikoki ezpada ere.

Zein da Elizaren helburua? Batez ere eta hitz laburrez: pertsonaren kristau askatasuna oihukatu eta hori realizatzen saiatzea.

Elizak oihukatu behar duen pertsonaren askatasuna Kristorengan zentratua dago. Bego hori argi. Elizarentzat, Kristo gabe ez dago egiazko askatasunik lortzerik.

Baina pertsonaren askatasuna da. Ez animarena. Eta ez gerokoa. Oraingoa eta betirakoa. Gizarte konkretuko pertsona konkretuarena.



Pertsona zirkunztantzia konkretu batetan bizi da beti. Eta ez dago zirkunztantzia neutralik. Zirkunztantzia guztiak pertsonagintzaren aldekoak ala kontrakoak dira. Zirkunztantzia hau kultura, pplitika, zientzia, ekonomia, etnia, familia,

konsumoa eta abar dira. Errealitate horietaz arduratu behar du Elizak, askatu behar duen pertsona zirkuntantzi horietan bizi delako eta horietaz forma tua nahiz deformatua. Horrela, pertsonagintzaren kontra doazen zirkuntantziak salatzen eta aldekoak mami tzen ahalegindu behar du.

Maila jeneral honetan irakurle guztiak konforme samar izango dira. Gauzak konkretatzen hasten garenean izaten dira kontuak.

Zeintzuk ditu Elizak bere helburua betetzeko behar dituen indarrak edo bideak? Kristo eta Bere hitza bakar bakarrik. Horrek behar luke Elizaren jabetza pribatu bakarria. Eliza pobrea, beste jabetzarik gabea.

Kristo eta Bere ebanjelioa ahazturik beste bide eta indar mundutar batzuez baliatu delako Eliza, orain honela ikusten dugu gehienbat:

- a) Jendea bataiatuak, gehiena herri aberats eta kapitalistetan bizi da.
- b) Horrek esan nahi du, Elizak zapaltzaileekin harreman hertsiagoak izan dituela zapalduekin baino.
- d) Ondorioz, bere helburu askatzailetik sahestua dagoela.

Henri Fesquet-ek, Erromako Sinodoari begira, (Le Monde, 28-9-71) honela zion:

"Comment, en effet, l'Eglise retrouverait-elle sa "fiabilité" si elle s'avérait incapable, d'une part, d'arrêter l'hémorragie de ses cadres et, d'autre part, de définir clairement ses responsabilités à l'égard d'un monde schizophrène dont les deux tiers sont victimes de l'apreté des pays possédants pour la plupart composés, comme par hasard, de baptisés... Le glas de la "chrétienté" pourrait être inscrit dans l'histoire du capitalisme contemporain et dans l'enflure de la civilisation de consommation.. De l'Eglise le monde attend non pas des paroles,

mais des actes de justice, d'intelligence du monde moderne et un "supplément d'ame". La jeunesse souffre d'une absence de spiritualité authentique et espère plus ou moins inconsciemment que le christianisme cessera de "confisquer" Jésus Christ".

Kristautasunak Kristo "konfiskatu" du. Beraz, Kristorengana eta bere ebanjeliora bihurtu behar du. Pobre izan beharra, hitz batez, ondoren ikusiko dugun pobretasunez.

§§§

Eliza pobrea. Elizak "bere mundua" sortzen duenean, mundua bigarren mailaratua gelditzen da. Elizak bere Herria, Bere organizazioak, bere kultura, Bere euskera, bere Ikastolak eta abar baditu, lehenik berea den hori zaindu nahiko du. Horrek horrela behar du, nahi eta nahi ez. Bazter ezineko lege siko-logiko bat da lehenik eta batez ere nork bere burua maite izatea.

Orduan, erremedio bakarra hau da: Eliza bere bururik ez dezala izan. Elizak bere "intendentziarik" ez dezala sor. Erdi Haroko "cristiandad" delakoa zokora dezala beldur gabe.

Elizaren Aberririk, Elizaren kulturarik, Elizaren euskerarik ez dugu nahi. Ez da horretarako sortua.

Guztiok dakigu Elizak garai batetan gerra sanduak defenditzen zituela. Uste dut hori superatu dugula gure artean. Geroago, eta oraino ere, lur santuak ba omen ziren. Eta gurea batez ere. Lur santu bat, Jainkoak emana. Hau ere ba goaz superatuz. Orain, ikuspegi geografikoak ez du etorkizunik eta, ikuspegi kultura doakigu nagusituz. Hori da eta eta munduko martxari eta modari jarraiki-, orain kultura santua defenditzen hasia da Eliza. Eta gure kultura sakratuaren gordailu sakratuagoa euskara delarik, bere euskara sortu eta zabaltzeko gertu da go, besteena gordailu ez ezik, galbide izango den beldurrez.

Gerra sakratuen ondoren lur sakratuak. Eta o rain, kulturaren haroan, kultura sakratua, euskera sakratua. Beste jantzi batzuekin Erdi Haroko "cris-tiandad" delakoa berriz ere. Eliza bere buruarekin, bere buru handiarekin. Eta, nahi eta nahi ez, mundu horretaz arduraturik eta "kanpoko" munduaz ahazturik. Jabetza pribatuen egarriz.

Elizaren egitekoa ez da bere burua salbatzea, mundua salbatzea baizik, Ez berak sortu duen mundua, herriak sortzen duen mundua baizik. Herriak-kredo batekoak nahiz bestekoak, nahiz kredorik gabe ak-egiten duen askatasungintza bultzatu behar du, askatasungintza horri fede oinarriak eta fede moti bazioak umilki eskainiz eta askatasungintzaren kon-trako jokabideak salatuz.

Elizako ateetatik kanpo giza askatasungintza rik egiten ez denik ez dezala pentsa Elizak. Giza baloreak erro errotik berak sortu behar dituenik ez dezala pentsa. Horretanxe dago Erdi Haroko "cris-tiandad" delakoaren funtsa eta gaurko Euskal Herri ko Elizaren tentazioa.

Nagusitzaren eta jabetzaren grina bortitzegi errotuak dituela uste dut gure Elizak. Ba ote da a-halmenik eta Jainko indarrik, nagusitza eta jabetza gabeko zerbitzu-jokabide bat hartzeko?



Eliza pobrea izan daiteke soilki askatzaile. Pobrea diruz, etxez, lege indarrez, organizazioz. Po-brea mundu honetako indarrez. Aberatsa Jainko hi-tzez, Kristoaz, izpirituz.

"Estados Pontificios" direlakoak galdu zire nean, askok eta askok pentsatu zuten Elizarenak egin zuela. Gaur, berriz, uste dugu, galdu ez baziren egin go zuela Elizarenak.

Egun, askok uste du Elizak beharrezko due-

la duen organizazioa eta dituen hainbat propietate. Segur naiz, oraino ikusiko dugula Eliza larru gorritan eta orduan izango dela libre eta libratzaile.

Indarrak ematen dizun babesak ez da babes, ba beskeria baizik. Elizak hartu behar duen bidea hau da: mundu honetako propietateak ematen dioten indarra galdu, indargabe bilakatu, esku hutsik, defentsarik gabe. Memento, horretan hasiko da Eliza askatzen.

Babeskeriak bere esku dituen harmak hau k dira:

- | | |
|----------------|-------------|
| a) Agintaritza | d) kontrola |
| b) Jabetza | e) epaia |

Eta konforme ez denari jipoia.

Ba da gaurregun ideia nagusi bat, ebanjelioaren eta teologiaren baretik beretik dariona eta egungo teologo sakonenek lehen mailan ezartzen dutena. Eta zera da: munduko erdibiketa nagusia zapaltzaileen eta zapalduen artekoa dela.

Besterik entzun eta ikasiak gara. Fededun eta fedegabeen artean zen guretzat amildegirik handiena. Horregatik, fedea defenditzea lehenago zen zapaldua defenditzea baino; kredo esatea lehenago zapalduarekin bizitzea baino, elizkizuna lehenago justizigintza baino. Egun ere, "euskaldun fededun" mitologiaren erreinua lantzen ari diren mugimenduentzat zatiketa nagusia fededunen eta fedegabeen artekoa da. Eta mentalitate honek izugarritzako ondorio makurrak sortzen ditu. Orduan, erlijioaren eta fedearen aldeko kanpainak eta frentea sortzen dira. Erlijioa absolutizatua gelditzen da eta pertsona zeharo erlatibizatua. Orduan, Jainkoaren izenean, erlijioaren izenean zapalduaren eta behartsuaren alde lan egingo da, baina zapaltzailea eta honen sistema buru gainetik kentzeko bide efikazik inoiz hartu gabe.

Gure herriko kapitalismoarentzat ez dago bide atseginagorik. Elizak erlijio frentea sortzea

la, ez du besterik nahi. Etsai berdinarekin kontra Euskal Herriko mugimendu eta indar askatzaileak - fededun naiz fedegabeak - indartzen eta bateratzen saiatu beharrean, erlijio gurutza bat agertzen bazaiku, berriz ere Elizak bere helburu nagusiaren kontrako bideak hartuko ditu eta indar zapaltzailei joko egingo die.

Euskal Herriko Eliza ahalegin honetan ikusi nahi nuke: erdibiketa nagusia zapaltzaileen eta zapalduen artean dela gogoematen eta horretatik ondorio praktikoak ateratzen. Ikastolaren inguruko erdigo mila eztabaida eta burruka arinkeria huts dela laster ohartuko litzake.

E. Osa.



27

ERREGE KANPAINA

Urte bukaera datorkigun heinean, errege kanpainari buruz zertxobait esan nahirik gatorzkizue. Dakizuten bezala, lehengo urtean hasiera eman zitzaion lan honi, aurten jarraitzea besterik ez zaiku tokatzen. Garai egokia beraz, bai guraso eta irakasleok ere elkarrekiko lan bat egiteko.


Esan bezala, lan honi buruz dugun iritzia eta aurrera bidea agertzea besterik ez dugu eginen.



HAURRA EGIZALE

Egian hazi, egian hezi, eta egiaz jokatzeari da guztion nahia. Hitz ederrak hauek eguneroko bizitzan ahoz-ahoz erabiltzeko; ez hain ederrak ordea, gure ekintza soiletan hala betetzeko.

Gure haurrak egi-bidean hezi nahi baditugu, ezin hainbeste xelebrekeria eginaz jarrai. Ipuin bihurturik agertzen dauzkiogun egi guztiek, haurraren irudimena nahasi besterik ez dute egiten.




Haurrari zuzentzean egiaz behar dugu jokatu. Hona bada lanean hasteko une egokia, gerturatzen ari den errege-garaia. Lehenik hauxe bada: ezin inolara ere onartu dugu jostailuak erregeek ekarri dituztela esaterik, baizik, egi-bide bat bilatu eta aurkitu behar dugu. Hain ulergaitza eta penagarria ote, gure haurra egiarekin aurrez-aurre aurkitzea? Alegia, Jesus Haurtxoaren izenean Belengo artzainek eta erregeek egin zituzten oparien oroimenez, egun, adiskidetasun giro batetan, eta bakoitzak ahal duen neurrian elkarri egiten dauzkiogun opariak direla.

Jakina, egiaren azalpena, haur bakoitzak duen adina kontuan izanaz behar da egin. Baina gezurrik inondik inora ere ezi;

Egia dela-ta egiaz jokatzeko badugu, haurrak gauza asko ulertu ahal izanen lituzke. Esate baterako, etxeko familiaren egoera; kidekoak direla uste dutenen arteko ezberdintasunak... Laster konturatzen dira bai, batek, eskatzen duena eta gehiago eskuratzen duela; besteak edo besteek berriz eskatutako a purra lortu ezinik dabilte. Egiazko heziketa bat ematearekin errealitatearen aurrean jartzea besterik ez dugu egiten.

Ezin dugu, gezurra hain merke eta egia hainbeste behar den garaian uka; ez-eta ohitura-lege bihurtu diren ospaketak haurraren zerbitzuan ez bada, inola ere onar. Ezin urteko pasadizoa, guztiak hala egiten dutela-ta, inguruaren arabera mugiturik, gure ekintza guztiak justifikatu nahi izan.



PROPAGANDAREN ERAGINA

Egia da baita ere, propagandaren esanera moldatzen ditugula urteko jai guztiak. Egungo komertzioaren ardatza bait dira.

Gerturatzen ari den errege garaian, bai zahar, bai gazte eta "haurrak" ere bai, ilusio eta itxaropen handiz egon ohi dira opari zai.

Egun irrati eta telebistak esaten daukute zer-nolako tresnak erosi: urrezkoak, zilarrezkoak, hala kuerda emate hutsarekin ibiltzen diren motor eta panpinak? Zenbait erraztasun ere eskaintzen daukigute, zera; plazotan ordainduaz erosi... honela, besteak hainbat izan gaitezkeala alegia. Gainera honelakoak urtean behin egin izandu dira eta behar dute gure haurrek zorion apur bat ere.

Gure artean honelakoak gertatzen direlarik,

garbi ikusten da ikusi ere, opariaren sentidua guttiz galdurik dela. Ezin, urtean behin ugaritasun handienez haurra pozik jarri, gero urte osoan behar du materiala, zeren urte osoan baita da haurra, beraz, ugari jolastu behar du, bai esku-lanak, ipuinak eta zenbait liburu ere berarekin dituelarik.

Egia esateak bezala, zer jostailu eskaintzen daukun jakiteak ere ba du garrantziarik aski. Lehenik haurraren beharrak ongi ezagutu behar ditugu eta hauek oinarriturik jostailuak erosten hasi... Baina kontuan izanaz baita ere, edozein jostailuk ez duela helburu hori bete ahal izanen eta benetan bilatu egin behar ditugula. Ezingo dugu goitik behera komertzializaziorik handienez, propagandaren bidez begiak betetzen dauzkigun materialarekin orain arte esandakorik bete ahal izan.



HAURRAREN BEHARRAK

Haurrak, adin, egoera eta gertakizun bakoitzean behar ezberdinak dituzenez gero, aski fijasatu beharko genuke eta behar handienari erantzuteko ahaleginak egin. Bere grina, nahikunde, zailtasunak, jakin-mina eta bere eskea oso kontuan eduki beharko genituzke.

Nahiz guri oso atsegina zaizkigun jostailuak izan eta deus esaten ez badiote, haurraren behar horretaz ez garelako konturatu esan nahi du. Beraz, baita inportantziarik asko gai honek eta buru-belarri jokatu behar genuke.

Haurrarentzat beharrezko da baita ere, oportunitate osoan zer-egina edukitzea. Zeren, gaur egun diren oporrak ez baita dira haurraren eskakizunari erantzuteko eginiko zerbait; baizik, programan eraturik dagoen bezala ohitura-legez ematen diren jaiak. Jakina bai guraso eta irakasleok ba dugu zer-eginik, baina ez inola haurrak errege eguna

ri begira zalantzaz beterik zai-ta zai.egon dite - zen.


Honela galtzen duen hamabostaldi honek ga - rrantzia handia du haurraren bizitzan. Beraz, garaia da azalezko, ospaketa hauek hautsi eta benetasun apur batez jokatzeko. Honela, Gabon gauean-edo jostailuak eskainiz gero, haurra lantzen eta jostailuak erabili azken esperientzia berriak egiten johanen da hamabostaldi honetan. Gero opor egun hauetan eginaren berri azaltzeko gogo handia izanen dute beren adiskideen artean.

Elkarrekin lanak, elkarrekin jostailuak, eta ez da bakoitza berearen gordetzaile eta bestearenak ezer onik ez duen ustean ibiliko. Hara, asko konturatu gaberik kidetasunaren oinarri den elkarrekiko lanetan hezitzen ari dira. Oso kontuan behar dugu irakasleok, heziketaren bertuterik nagusia haurra kidetasunean hezitzea dela, honela gizarterako prestadadin.

Haurride

Oharra:

Jostailuak haurraren bizitzan duen garrantzia ikasteko "El juguete en la vida del niño" liburua guztiz egokia da.



URRATS BERRI BATA

Hainbat aldiz amestu eta aipatu dugun "Ikastola-liburuen" arazoa amets eta nahikunde huts ez-baina, errealitate bihurtzen ere hasiak gara irakasleok, eta ustez oinarri seguruetan finkaturik hasiak, gainera. Oinarriak: planifikazio baten arazoa, ekonomiarena, maila bakoitzaren eta arduradunen arazoa hartzen ditugularik oinarritzat.

Zenbait xehetasun lehen ere hemen berean eta beste informazio bideak direla medio ematen johanik gara. Aurrerat ere ez dugu pentsatzen hemen amaituko denik guztia, datorrena datorren bezala in formatzen ahaleginduko bait gara.

- Baina horiek oro, beste zerbaiten berri eman nahi dugu egun. Hona hemen agiria, bakoitzak berak juzgatu eta maisea dezan, eta gutienez, eman den urratsaren berri jakinaren gainean egon dadin.

Walt Disney-ren "Gauza Harrigarriak" delako liburu sailaz, Iñaki Beobidek eta Irakasleen Elkartek hona non finkatzen duten, elkarrekiko egin kizuna eta ondorioak:

I

I. Iñaki Beobide banatzaileak

a/. eskatzen duena:

- 1.- Liburu sail honen berri eman dezaiola elkartek, andereño edo irakasle guztiei, saltzaile edo banatzaileek oztoporik ukan ez dezaten, herrietan.
- 2.- Irakasleek, kasu bakoitzean, ongi irizten

- badiote, eman bezaiete gurasoei liburu hauen berri.
- 3.- Ikastoletako haurren bidez bana dezatela propaganda haurren familietara.
 - 4.- Haurren gurasoen zuzenbideez zerrenda e giten lagun dezaietela, irakasleek gure ordezkari*e*i.

b/. Eskaintzen duena

- 1.- Goian aipatzen diren eskaerak betetzen dituzten herrietan, banatzailearen sal - tzaileek, beren komisioretatik zatirik handiena (harpidedun bakoitzeko 500 pezeta) ikastolei laguntzeko sortuko den fondo batetarako eskaintzen dute.
- 2.- Zati hau, hasera batetan, eta batz bestea, gutienez hilean 50 mila pezeta izanen direla hitzematen dugu.
- 3.- Gure ustez, ikastolak arazorik handienetako bat testo liburu eta irakurgaien arazoak dute, eta guk eman dezakegun lagun - tzarik handiena eginkizun honetan dela kontuan izanik, gure nahia da, fondo hori hutsune hau betetzeko izatea, batik bat.
- 4.- Ideia hau aurrera eramateko, mahain bat sortu beharko litzakeela ikusten dugu; batetik, zuek, zer eta nola argitaratu proposatzeko, eta bestetik, gu, non argitaratu eta komertzialki aurrera nola eramane proposatzeko.
- 5.- Beharrezko iduritzen zaiku aurrez garbi jartzea, testo eta irakurgai liburu hauek ez direla komertziorako eginak izanen. Ikastola guztiei zaizkie zabalduko eta

URRATS BERRI BAT

Hainbat aldiz amestu eta aipatu dugun Ikastola-liburuen"arazoa amets eta nahikunde huts ez-baina,errealitate bihurtzen ere hasiak gara irakasleok,eta ustez oinarri seguruetan finkaturik hasiak,gainera. Oinarriak:planifikazio baten arazoa,ekonomiarena,maila bakoitzaren eta arduradunen arazoa hartzen ditugularik oinarritzat.

Zenbait xehetasun lehen ere hemen berean eta beste informazio bideak direla medio ematen johanik gara. Aurrerat ere ez dugu pentsatzen hemen amaituko denik guztia,datorrena datorren bezala in formatzen ahaleginduko bait gara.

- Baina horiek oro,beste zerbaiten berri eman nahi dugu egun. Hona hemen agiria,bakoi tzak berak juzgatu eta maisea dezan,eta gutienez, eman den urratsaren berri jakinaren gainean egon dadin.

Walt Disney-ren "Gauza Harrigarriak" delako liburu sailaz,Iñaki Beobidek eta Irakasleen Elkartek hona non finkatzen duten,elkarrekiko egin kizuna eta ondorioak:

I

I. Iñaki Beobide banatzaileak

a/. eskatzen duena:

- 1.-Liburu sail honen berri eman dezaiola el karteak, andereño edo irakasle guztiei,sal tzaile edo banatzaileek oztoporik ukan ez dezaten,herrietan.
- 2.-Irakasleek,kasu bakoitzean,ongi irizten

badiote, eman bezaiete gurasoei liburu hauen berri.

- 3.- Ikastoletako haurren bidez bana dezatela propaganda haurren familietara.
- 4.- Haurren gurasoen zuzenbideez zerrenda egiten lagun dezaietela, irakasleek gure ordezkariari.

b/. Eskaintzen duena

- 1.- Goian aipatzen diren eskaerak betetzen dituzten herrietan, banatzailearen saltzaileek, beren komisioetatik zatirik handiena (harpidedun bakoitzeko 500 pezeta) ikastolei laguntzeko sortuko den fondo batetarako eskaintzen dute.
- 2.- Zati hau, hasera batetan, eta batz bestez, gutienez hilean 50 mila pezeta izanen direla hitzematen dugu.
- 3.- Gure ustez, ikastolak arazorik handienetako bat testo liburu eta irakurgaien arazoak dute, eta guk eman dezakegun laguntzarik handiena eginkizun honetan dela kontuan izanik, gure nahia da, fondo hori hutsune hau betetzeko izatea, batik bat.
- 4.- Ideia hau aurrera eramateko, mahain bat sortu beharko litzakeela ikusten dugu; batetik, zuek, zer eta nola argitaratu proposatzeko, eta bestetik, gu, non argitaratu eta komertzialki aurrera nola eraman proposatzeko.
- 5.- Beharrezko iduritzen zaiku aurrez garbi jartzea, testo eta irakurgai liburu hauek ez direla komertziorako eginak izanen. Ikastola guztiei zaizkie zabalduko eta

gosta-prezioan edo ahalik merkeen, mahai naren iritzietara bilduaz, salduko dira.

- 6.- Argitaratzen diren liburuen zabaltzea, "Iñaki Beobide" banatzaileak, bere gain hartzen du.

2. Irakasleen elkarteak proposatzen duena

1.- Irakasleen elkarteak, puntu hauek onarturik, liburu arazoarekiko har-emanetan, Arantza Harri eta andereñoa izendatzen du arduradun bezala. Eta honekin batera beste hauek osatuko dute lehen aipaturiko mahaina irakasleen aldetik:

Uri Ruiz, Kontxi Zabaleta, Eusebio Osa eta Maddi Tambourin.

2.- "Gauza Harrigarriak" delako liburu sailetik sortzen den dirua, Iñaki Beobide eta Arantza Harrietaren izenean gelditzen da, beti ere batak bestearen baimenik gabe dirurik ukitzeko eskubiderik ukan ez dezan.

3.- Gure organizazio honen faltan, hots, Irakasleen Elkartearen faltan, Euskal-Zaindiaren baitan uzten dugu, gure alderdia, baina ikastoletan diren beharrik nagusientzat banatzeko kondizioarekin.

4.- Irakasleen elkarteak egokien derizkion pertsona bat hautatuko du, bereziki lan hau mugi dezan. Eta honen ordain sariaren kargu, Iñaki Beobide banatzailea egiten da.

Oharra: urtebeteren burura, adibidez, 72-ko irailaren hasieran berriro puntuak bat-banaka ikusiko dira eta lehen bilduriko esperientzia ikusirik, markatuko da aurrerabidea.

LIBURUTEGIAREN HASTARENAK

Liburuxka eta fitxa sorta hau, benetan interesgarri eta beharrezko da, irakasle eta haurren eskuetan, irakurketa eta idazketa prozesorean barnean, lanerako instrumentu bezala.

Ikastolan egiten den guztiak haurraren bizitzari hertsiki loturik egon behar duela gogoan dugularik, benetako heziketa eman nahi badiogu behintzat, irakurketarako eta idazketarako behar duen material guztia bere mundu konkretuari eta inguruari loturik behar du egon; ematen diren hitz guztiak haurraren hiztegiak behar dutela izan, alegia.

Dakigunez, LEHEN IRUDIAK, LEHEN HITZAK "Rosa Sensat-eko irakasle taldeak katalanez eginiko lanetik euskeratua da, hain xuxen ere. Lan hau, haurrekin izandako eta eginiko zenbait esperientziaren fruitua da, haurraren interesgune bizienarekiko hitzak hautatuaz. Lan handi honen ondorio bezala, LEHEN IRUDIAK, LEHEN HITZAK-en bidez, haur eta irakasleok badugu irudi eta idatziriko hitzez osaturiko hiztegia.

INTERESGUNEAK. -

Kolezioko hamasei liburuak interesgune haureri dagozkie:


- | | |
|------------------|----------------|
| 1 PERTSONAK | 9 IKASTOLA |
| 2 ETXEA | 10 HIRIA |
| 3 JANARIA | 11 OFIZIOAK I |
| 4 JOSTAILUAK | 12 OFIZIOAK II |
| 5 JANTZIAK | 13 DENDAK |
| 6 ANIMALIAK | 14 LORATEGIAK |
| 7 IBILGAILUAK I | 15 LANDA |
| 8 IBILGAILUAK II | 16 IPUINAK |

Lehenengo seirak haurraren lehen interesgu-
nei dagozkie, hain xuxen ere, lau urtetatik abiatuaz
alegia; besteak interes honen prozesuari jarraitzen
diote.

Liburuxka bakoitzean hitzek bere irudiarekin
loturik daude. Hitzek ez dute soilki gauza adieraz-
ten, ekintza bat ere bai noski; eta irudiak kualita-
teak bilatzen, erlazioak egiten eta abar laguntzen
dute.

Soil-soilean liburuxka haurraren eskuetan,
zenbait posibilitate ematen diola esango nuke. Hi-
ru, lau edo bost urtetako haur honek, liburuxka hau-
en irudiak begiratuko ditu, xehetasun guztiak ikusi
ko ditu, beren artean zenbait erlazio ikusi ere bai,
irudi artean eta bere bizitzaren arteko erlazioak,
irudi hauetaz hitzegiten hasiko da, eta beregan sor-
tzen dituzten reakzioak hitzez ematen.

Hau dena haurrak bakarrik
egin dezake baina irakasleok edo
gurasoek zuzendu beharko dugu,
lan hau efikazagoa izan dadin.
Haurrari, bere mundua ordenatzen
eta bera ere ordenatuago izaten
lagunduko dioten lana da eta heziketa mailan eman
behar dituen urrengo pausoetarako ere askozaz ere
gertatuago aurkituko da.



IRAKURKETARAKO HELDUTASUNA

Hau dena oso inportantea da irakurketa eta
idazketa prozesoren barnean. Liburuxka hauen bidez
egizta genezake zein mementotan hasten den haurra
hitzen forma grafikoa buruan gordetzeko kapaz iza-
ten, aldi berean hots batzuen bitartez erlazionatzen
dituelarik. Horrek ez dio Ikastolari memento hau
izki eta hitzekin beste era batera gertatzea ken-
tzen. LEHEN IRUDIAK, LEHEN HITZAK delako liburuxkak
ez dute ezartzen irakurketarako eta idazketarako
metodo mugatu bat, baina ikusi dugun ekintza hori
bide delarik, haurrari lagun egiten diote, eta guri
ere lagunduko daukute segur, haurraren heldutasuna

ezagutzen irakurtzen eta idazten benetan hasi dadi nean. Funtsean, material aberatsa datorkigu.

KLASERAKO MATERIALA

Ikusten dugunez, gure ikastoletan erabili ohi dugun materialaren artean baliotsuenetako bezala hartu beharko genuke liburuxka sorta hau. Baina ez dira liburuxkak bakarrik, lehen esan dutanez, badira berekin batean fitxa batzuk ere: a) marrazki fitxak eta, b) hiztegi fitxak, Irakasleak ikusi ahal izan nen du noski, material honen bidez, lanerako zenbait posibilitate:

a) HITZA IRUDIAREKIN BILTZEA

- jar zazu irudi bakoitzaren azpian bere esan nahia.
- jar zazu hitz bakoitzaren ondoan bera adierazten duen irudia.

b) IRUDI EDO HITZEN BILTZEA, molde, kualitate, utilitate edo materialari begiratuaz.

- bila itzazu bazkaria egiteko gai diren irudi guztiak.
- bila itzazu zurezko gauzen izen guztiak.

d) IDAZKETA MUTUAK

- idatz itzazu irudi hauetan ikusten dituzun gauza guztien izenak.
- idatz itzazu irudi hauetan ikusten dituzun "mo" edo "ma" hotsa duten gauza guztien izenak.

e) IDATZ ARIKETAREN AUTOKONPROBAZIOA


- ikus zazu izen guztiak ondo jarri dituzun.

f) LEHENENGO ESALDI BATZUEN OSAKETA

— jar zazu "atsegin zait" hitzaren ondoan a
tsegin dituzun gauza guztiak

BILINGUISMOA

Hau dugu, hain xuxen ere, gure ikastoletako prolemarik handienetariko bat. Ez dut uste material guzti honek gure ikastoletako haur erdaldunen prolema guztia soluzionatuko daukunik, bai na benetan asko lagun dezaiguke. Hizkuntza berri bat ikasterakoan, hizkuntza horretan pentsatzen hastea da gaitzena, eta egungo hizkuntza-metodo gehienak prolema horri begira eginak daude. Liburuxka eta fitxa hauek prolema horri soluzio-bide aski eman dezaiekela uste dut. Izan ere, haurra, irudia hitzarekin lotzen dohan neurrian, euskaraz pentsatzen hasiko da.



Fitxa hauek, zenbait guraso erdaldunentzat ere arras interesgarri izan daitezke. Haurraren hiztegi bera gurasoek ere osa bai dezakete; eta orduan, euskaraz hasi den bere haurrari aski erantzun dezaiekete. Horrela haurrak bere etxean, gisa batean behintzat, ikastolaren nolabaiteko jarraipen bat aurkitzen ahal du; eta honela ene iduriz, haurrak beste hizkuntza batetan aurrean duen txoketa asko gutxiagotuko litzake. Katalanak ere haurrekin hizkuntza irakasketan, fitxa hauek erabili ohi dituzte.

DIPOSITIBAK

Bost urteak arte proposaturiko lan guztia hizketa jeneral eta ariketa indibidualezkoa izan arren, 5n. urtearen kondarretan eta, batez ere, 6 urtez gero, ariketa asko koletiboki edo taldean presentatu daitezke, horietako batzuk taldean egin ere bai. Helburu honetarako, LEHEN IRUDIAK, LEHEN HITZAK liburuxketako irudi guztiak erabilbide errazetako

diapositibatan eginak izan dira.

Hitz bati baino gehiagori dagokion irudiak, mutikoaren gorputza, neskatoaren jantzia, mahaina jarria, etxea barnetik eta abar, taldeko elkar-hizketa handi batetan presentatu beharra dago. Beronekin hiztegiaren zehaztasuna seguratu nahi da, eta ulertze-ariketei hasiera eman ere bai.

IRAKASLEAREN LIBURUA

Liburuxka eta fitxa hauekin batean ere, bada beste liburuxka bat: irakaslearen liburua, hain xuxen ere. Liburu hau, irakasle bakoitzak bere eskuan beharko du erabili, berak erakusten bait du liburuxka eta fitxak nola erabili.

Bestalde, komeni zaigu jakitea liburuxka eta fitxa hauek erosterakoan ikastola bakoitzak zer kriterio erabili. Liberatuen azken bilkuran, hain xuxen ere, puntu hau ukutu ahal izan zuten, eta beren iritziz, honoko kriterio hau ikusten zen egokiena:

- a) 30 haurrekiko klase batetan, 15 liburu eta 10 fitxa. (Ekonomi prolema dela-ta, ikastola batean ezinezkoa balitz hori, minimum batetara iritxi beharra ikusten zen). Minimum hau alegia:
- b) 30 haurrekiko klase batetan, 9 liburu eta 6 fitxa.
- d) Irakaslearen liburua berriz, maisu bakoitzak berea beharko luke.

Kriterio hau hautatzerakoan arrazoin bat izan dute gogoan: haurraren askatasuna. Ikastola gehienetan, oraindik behintzat, betiko ekonomiko prolemaren menpean aurkitzen garenez, material hau klase bakoitzarako erosi beharrean, klase batetarako bakarrik erosteko tentazioa izan genezake. Klase batetarako erosteak, materiala klasetik klasera era

biltzera behartuko gintuzke,klase bakoitzerako e -
gun konkreto batzuk hautatuaz. Horrela,haurrak hain
beharrezko duen askatasuna,egun konkreto horien men
pean mugaturik geldituko litzake.

Egia esan,hain handia den ekonomi prolema e
zinezkoa da ideal batzuekin bakarrik menperatzea e
do gaintitzea;dena dela,interesgarri litzake behin
tzat esan dutan minimumhorretara iristea,ikastole
tan klase bakoitza bere liburutegia osatzen joan
dadin bederen.

Azkenik,interesgarri litzake baita ere,fi -
txa hauekin lanean ari garen neurrian,aldizkari ho
nen bidez gure esperientziak agertzen joatea..

JOMA



BARCELONATIK ZEHARA

Ez da erraz gure jirabiraren berri zehatz-mehatz ematea, baina ahaleginduko gara egina ren haria gisarik egokienean agertzen.

Barzelonako Didó zentraletik, delegazio guztiak elkarrekin egin behar genuen bileraren deia hartu genuen, eta hau zen bilera gaia:

- 1.- Delegazio guztien berri ematea
- 2.- Kooperatiba eraketa nola doan
- 3.- Errege kanpaina

Bilera gaia garrantzizkoa zela-ta han elkar tu ginen delegazio guztietatikoa. Elkarren berri ematerakoan, delegazio berri batzuen sortzea eta ma terialari buruzko zenbait puntu hitzegi ziren.

Didó kooperatiba dela-ta ba zen le hendik lan hontan ari zen talde bat. Hona biltza rrean egin zuten azalpena: Kooperatiba egiteko mate rial guztia prestaturik bada ere, ez da kooperatiba egin ahal izan. Ba da tarte hontan pausoak ematen galeraziko daukun trabarik.

Didó hasi zenean S.L. (Sociedad Limitada) i zenekó elkartea zen sortu. Egun elkarre hontako hiru lagunek ez dute Didó kooperatiba egin dadin nahi, baizik ahal duten guztia egiten ari dira hori ankaz gora botatzeko eta garbi asko ikusi ahal i zan genuen dirua zela hirukote hau era hontan mugi erazten duena.

Dena dela elkarre legez desegiten ez den bitartean ez daiteke kooperatibarik sortu, edo-eta sortzen bada, beste izen batekin izan beharko luke; beraz, Didó izeneko elkarre honek jarraitzen duen bitartean ezin izen honetako kooperatibarik egin.

Bestalde, material honekin lan egin duenak i zen berdinarekin nahi du aurrera jarraitu. Gertaki

zunaren aurrean berriro ere talde bat arduraturik gelditu zen hau ongi lantzekotan.

Esanak esan,eginaren berri bidalitzekotan gelditu ziren,eta egunean egunekoa azaltzen saiatu ko gara.

Errege kanpainari buruz hitzegina, salerosketa kontua besterik ez zen. Alegia,zenbat material eskatu den,zer gehiago eskatu daitekeen; sortu den material berria;ordainketa kontuak,etab.

Iruñako ikastola ere gurearen antzeko den dendatxo bat prestatzen ari da. Beraz,Iruinakoa eta Donostiakoa ikastolak,sorturikoak dira. Bilbaon dagoena berriz,hango emakume batek jarria da.

G A L E R A

Lehen irudiak atera diren editorialean izan ginen,eta Doriarekiko harremanen bidez jakin ahal izan genuen zer duten orain arte eginik eta zer aurrerantzean egiteko asmotan.

Ongi jakina da erdaraz zerbait ateratzen ari diren garaian euskaraz ateratzen bada,askoz ere merkeago izanen litzakeela.

Laster aterako dituzten lanen artean,irakurketa metodoaren azken zenbakiak prestatzen ari dira. Beraz,gu ere hauekin batean ateratzeko prestatuko bagina...ez litzake tanto txarra;

Honez gero esan duzute zera,laugarren zenbaitik hamahirugarrenera pasatzea ez dela nolana hiko saltoa,eta ongi ote dagoen,edo...ahal dakit niki;

Gure aldetik ere ba genuen zalantza hau eta lan honen zuzendaria den Marta Matarekin hitzegin ondoan ,ez duela hainbeste garrantzia esan zeukun.

Dena dela lan hau hizkuntza taldekoen eskuetan uzten dugu eta esandako garairako atera behar badira,dantzatu beharko du jendeak.

Ttipientzat bezala handiangoentzat ere ari

dira zenbait lan prestatzen, batez ere ipuin, espre-
sio gaiak eta zenbait jolas ere. Material guzti ho-
nen orijinalak ekarri ditugu eta hizkuntza taldeko-
en eskuetan utzi ditugu.

XIRIVIT

Xirivit izena duen eskolako irakas-
le batekin hitzegin ondoan Euskal Herriko haurrekin
korrespondentzia nahi lukeela adierazi zeukun. Es-
kola hontan, 2-3-4 eta 5-garren kursoko haurrak dau-
de.

Eskolaren zuzenbidea:

Escola Xirivit

Avda. Montemar, 316. n° 9-11

Castelldefels. - BARCELONA

Gure berririk jasoko ote dute?

LIBURU BERRIAK

Estela editorialean ateratzen ari diren li-
buruen zerrenda hartu ahal izan genuen. Oraingoz
katalanez hasi dira, beste batzuk berriz, gaztelaniaz
ateratzeko prestatzen ari dira.

Katalanez atera direnak:

- 1.-Modernitzar l'escola (Freinet i Salengros)
- 2.-Les invariants pedagògiques (C.Freinet)

Laster aterako direnak:

- 1.-Dibuixos i pintures d'enfants (E.Freinet)
- 2.-Les malalties escolars (C.Freinet)
- 3.-El text lliure (C.Freinet)

Prestatzen ari diren beste zenbait liburu:

- 1.-Formació de la infància i la joventut (C.Freinet)
- 2.-Educació moral i cívica "

- 2.-Educació moral i cívica (C.Freinet)
- 3.-Quin és el paper del mestre (E.Freinet)
- 4.-L'educació del treball (C.Freinet)
- 5.-Assaig de psicologia sensible "
- 6.-El problema de la joventut (E.Copferman)

GAZTELANIAZ PRESTATZEN ARI DIRENAK

- 1.-Nacimiento de una pedagogía popular
(C.Freinet)
- 2.-Por la escuela del pueblo "
- 3.-La escritura del niño (J.de Ajuriaguerra)
- 4.-La escuela y el niño (J.de Dewey)
- 5.-Análisis institucional y pedagogía
(Ginette N. Michaud)
- 6.-Fundamentos de pedagogía socialista
(Bogdan Suchodolski)
- 7.-Pedagogía del ocio infantil
(Rosse M. de Casabianca)

Liburu hauek eta beste zenbait ere eskuratu bezain laster, ikastolarako duten balioa kontuan izanik, Haurriden izanen ditugu gainontzeko materialarekin batean.

Azkenean heldu zaiku irakurketarako euskara turik zen materiala, bai liburuxka, fitxa eta diapositibak ere.

Arantza

ALDIZKARIARI ⁴⁴ BEGIRATU

T. Elorza

Azken lumeroan, aldizkariaren gora behera eta asmoak agertzen dira.

Ondo ikusten dut aldizkariaren martxa. Behar bada, kritika gutxitxo... baina gure xepelkeriaren berri dakiena ez da harrituko, ez horixeji

Aldizkariaren PLANETAN hiru sail agertzen dira, bat informazioa. Informazio barruan liburuen berri ematea ongarri eta interesgarria deritzat. Kultura beharrean gara, era eta mota guztitakoa. Denok liburu ondoren gabilta, titulu interesgarriak ikusten ditugu... eta ez dakigu zeini heldu. Liburu on asko eta asti gutxi, bestalde. Zer egin?

Denborarik alferrik gal ez dezagun, liburu heldu edo giltzarri direnen berri jakitea komeni zaiku. Eta horretarako, aldizkaria bide egokia. Liburu sail horren lana liburuen berri ematea litza-ke: gaia, alde on eta txarrak, eta non aurki diteken.. Laburpen koxkor bat aski.

Horra pare bat:



I



"Psicoanálisis de la sociedad contemporánea" 1.955
Erich Fromm. Fondo de cultura económica, Mexico. (Librería Lagun).

Ipar Ameriketako kapitalista gizarteari begira egindako analisisia da, baina Mendebal, eko gizar tea ere horretarat dohanez, honerak, berdín balio du ela dio egileak.

Sano ote gaude? Galde egiten du hasieran. Gizonaren nortasunak eskatzen duena aztertzen du: Egile, ez enajenatu; munduarekin maitekiro erlazionatu eta, arrazoi bidez, gauzak bere baitan onartzen dituen, ez deformatua; norbere nortasunean finkatua eta, berebat, besteekin



bat egina; kontzientzia eta arrazoiari gogo onez lotua, ez autoritate zoro bati...

Zer gertatzen da egun? Bai Sozialista bai kapitalista eraketak alienatzaile gertatu direla, gizona ez dela bere buruaren jaun eta jabe. Bietan "Robot" bihurtzeko arriskuan.

Jeneralean ari denean ondo dihardu: Pertsona koi gizartea behar da, gizonaren neurrikoa.. baina, behar bada, soluzio konkretotan ahul geratzen da. Ha la ere merezi du.

II

"La escuela abierta: libro-acción para una educación popular y permanente". 1.970. Egilea: Bernard Eliade. Edit. Fontanela.

Aurkibidea azalduko dut, jakingarria bait da.

Punto 1. Egungo eskolaren kritika: irakasle, toki, reglamentu...

Punto II. Orain arteko eskola goitik behera koa izan da, azpikoek hitzik ez zutelarik. Hori aldatu egin behar da: zabaldu. Ikasleari bideak eman behar zaizkio, ikasleetatik hasi, bere beharrak kontuan izan, elkar hizketa eta elkar lana (irakasle eta ikasleen artean, noski), erakusketa banakatu, indibia dualizatu..

Punto III. Lehengo oinarriak hartuta egindako esperientzia batzuk.

Punto IV. Esperientzietatik organizaziora. 10 "lanerako oinarri" ematen ditu.

Punto V. Eskolak heziketa iraunkor eta herriko baten ardatza izan behar du: ikaslearen eta herriaren kultura bide bat.

Bernard Eliade-k eskolara dakar Parisko Maiatzeko eskakizuna: elkar hizketa, partizipazioa. Oso gogoko zaio gainera.

Kontuan izan behar da 15-17 urtetako mutilekin ari dela baina, bere esan nahiak ez du deus galtzen beste mailetarako. Oso Freinet-koia da.

DIN DAN BOLERAN

1) MUGAZ HANDIK

a) Xoria kantari. - Haur-kanta liburuxka bat heldu zaiku arras xarmantki taxaturik. Minaberri anderea eta Aita Lertxundi beneditanoa dira egile: bata letrarena, musikarena bestea. Kantu multzo polita dakarren bilduma dugu, ikastolek inola ezin bazterrera duten bilduma, eta are gutiago musika lan sailekoek.

b) Andereno berriak. - Gure artean, hemen, mugaz handiko lauzpabost andereñogai daduzka gu praktikak egiten. Gertakizun honen harian gerorat begiak luzatuz gero, esperantza eder baten argiak pizten gaitu: "Geurea da, eta geurea..."

2) DURANGO ALDEKO BERRIAK

a) Udako kursiloetan hartu ziren erabakiak ikusiaz, Durango aldeko irakasle guztiok eta gure artean ondarrutarra, kursoaren hasieran elkartu ginen.

Lehenengo egunean, ikusi genuen zelan andereñoak ez gauden gertaturik haurrari herri kultura oso bat emateko, eta geugandik hasi behar genuela. Honetarako talde batzuk egin ziren.

Lehenengo taldeak egin zuen gizartearen haziera eta honek zeduzkan aldakuntzaren sakonketa; gero, honen ondoren, gaurko egoera edo etorkizuna ezagutzeko. Lan honen kritika egiteko elkartu ginenean eztabaida bat sortu zen. Batzuentzako, estudio hau etzen egokiena; berek agertzen zuten arrazoia zen: Esku arteko problemei erantzuna emateko, problemetarik hasi behar genuela, eta ez teoria global batetik.

Hau onarturik, gelditu ginen ikastola bakoi-tzean daduzkagun arazoan estudio bat egitea.

Estudio hau eginda gero, agertzen zen argi e

ta garbi denontzat problema handienetarikoa, ez gengozela behar den legez gertaturik haurrari heziketa askatu bat emateko. Eta honetarako biderik egokiena ikusi genuen esperientziak egitea, aste beteko epean. Atera genituen ondoreak hauk ziren:

- Haurrak poztasun gehiagoz lan egiten duela berek autaturiko lana betetzen dutelako.
- Responsableagoak egiten dira.
- Andereño ganako konfiantza giro bat sortzen delako.
- Haurrak kritika bat egiteko gertatzen dira.

Beste alderdi batetik ikusi zen, haur batzuk etzirela gai, giro honi jarraitzeko, baina ezin genezake esan ez direla moldatuko, epe tipia izan bait da. Oraindik jarraituko dugu esperientzia egiten eta honekin batera metodo egoki bat bilatzen.

b) Azkenengo batzarrean planteatu den arazoa:

- a. Gu, andereño legez, zer harreman dugu gure herrietan?
- b. Eduki behar dugu ala ez?
- d. Ala "ume polit" batzuk izaten jarraitu behar dugu? Edo ikastola "ondo" erroan eta dena amaitu ote da?

Nere iritziz, hau bakarrik bada andereñoen eginkizuna, uste dut ez garela gauza handirik; onak gaude gu, gizarte bat aldatzeko; Gu aldatzen ez garen bitartean, ez pentsa gure haurrak herrirako egingo ditugunik, eta hau egiten ez dugun bitartean alferrik gabiltz.

d) Joan den astean Loiola irratian izan ginen asmo batzukin: gabon abesti batzuk ikusten eta haurrentzat programa laburtxo bat lortzeko

erarik dagoen ikusten.

Honetako zuzendariarekin egoteko geratu ginen eta talde tipi bat arduraturik dago. Hau lortzea interesgarria ikusten genuen herri bazuetako erdal giroa ikusiaz. Ezer egiten badugu a gertuko du burua.

3) HANDIK ETA HEMENDIK

a. FREINET TALDEKOEN OHARRA

Irailaren 10-etik 12-rarte, Madrilen Freinet stage bat izan zen. Bostentzako tokia ez - kaini zuten; hala ere eskutik eginaz sei joan ginen.

Freinet kursiloetatuz interesatzen diren guziak jakin beharreko erabakia hartu zen bertan. Aurre rantzean kursilo hoietan parte hartu ahal izateko, jarraiko baldintza hauk bete beharko direla, alegia:

1. Freinet-en teknikak ezagutu, edo ezagutzen saiatu, eta seriozko praktikan jartzen ahalegintzea.
2. Kursiloetan estudiorako eta inbestigaziorako autatzen diren gaiak landu.
3. Guzi hauek lan kooperatibo moduan, hau da, urtearen zehar aldizka bilduko den talde baten barnean.

§§§§§

(Talde ttikiak egitea gomendatzen zeukuten lan efikaz bat egin ahal izateko)

Madrilen izan ginenetik lau konprometitu ginen taldean lana egiteko baldintza hauk onartuz.

Gure eta M.E.M. (Movimiento Escuela Moderna) taldekoen arteko koordinatze lana egiteko Ana Arana Arrasaten dagoena hautatu genuen; interesatuek, be-

raz, berarekin har-emanean jarri zindezkete, lehen -
bait-lehen, arren.



Ana Arana

Torre Izarra 4^o D

Arrasate

b) Gure "Ikastola-liburutegiaren" arduradun.

Gogoa eta borondate ona ez bait da aski, ez genuen liburuen arazo hau behar den bezala mugierazteko biderik ikustean, ez irakasleen aldetik, ez-eta liberatuen aldetik. Horrela beraz, begi emanik genuen bati eskaini genion lan hau eta azkenean ezetz eman dauku. Dena den, Jose Mari Allur hautatu dugu lan honetaz bereziki ardura dadin oraindik-eta urteberrira arte. Orduan, urtarrilean, hau soldadu dohanez, besteren bat ukanen ahal dugu. Horrela izanik, bitartekoa, izan liteke esperientzia on bat.

d) Elizaren ordezkari berria

Orain arte Gipuzkoako Federazioan Elizaren Ordezkari izan den Lasa Jaun Kalongea bizimoduz aldatu delako albiristea hartu dugu. Zorionak opa besterik; Eta honen ordainez Arregi Eujenio ote den, diote, izendaturik. Zorionak honi ere, baina lehenaren mailatik gorat jo dezala eskatuko genioke, zeren-eta bestenez lehenean gelditzea bait litzake.

e) Gabonetako tarjetak

Lau eredu desberdin. Hamar-dozena bat izan baliraj Alabaina guztiz xarmantak dira, e-

ta batez ere, ideia handia ematen dutelako, baliotsu
ak. Gure goresmenak Iruñeako Ikastolari

f) Lehen-irudiak, lehen hitzak

Delako liburuxka sortaren lehenda-
biziko lau aleak beren fitxa, filmina eta material
oro prestaturik da jadanik, eta aldizkari honen zen-
bakia baino lehen, eskuetan dukete hainitz ikastole-
tan. Liburuxkekin batera orri bat doha zenbait xe-
hetasun argigarri emanaz. Hots:

- Liburuxka hauk ez direla haur bakoitzaren-
tzat ale bana izateko.
- Ikasgela bakoitzeko haur multzoaren arabera
"Ikastola-Liburutegia" osatzeko direnez, as-
ki dela ikasgela bakoitzak, bere liburutegi-
a eraiki dezan, egin dadila zenbait aleren
jabe. Hona adibidez, 30 haurreko ikastola
batetan nola beharko lukeen:

1. Maximum=15 liburuxka- 10 fitxa. Hots, hi-
ru liburuxka bakoitzeko, kaxa bi fitxe-
nak.
2. Minimum=9 liburuxka -6 fitxa
3. Irakaslearen liburua: bat aski irakasle
bakoitzarentzat.
4. Filminak: bat aski ikastola guztiaren -
tzat.

g) Eguberrietako kursiloak

Agidenez, hasirik da zenbait baila-
ra gabonaldian bizpahiru egunetan zehar ikasketaren
bat egiteko eta sakontzeko gaiak prestatzen. Ongi
legoke bailara oro edo eskualdeka garaiz has dadin
pentsaketan egun horik zinez probetxatzeko. Irakas-
le batek zion, eta egia: langileek ez dute oporrik
egun horietan". Zergatik ez eman, beraz, irakasleok e-
re egun batzuk gisa honetako lan batzuk burutzeko?

Berriketari

